

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

Agertokiak alokatzeko dirulaguntzen deialdiaren laburpena

BDNS (Identif.): 887173.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/887173>.

ARRATZUA-UBARRUNDIAKO HERRIETAKO JAIETAN ERABILTZEKO AGERTOKIEN ALOKAIRU GASTUAK ORDAINTEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAREN LABURPENEA

Alkatearen 2026ko otsailaren 12ko 30/2026 Ebazpena, Arratzua-Ubarrundiako herriko jaietan erabiltzeko agertokiaren alokairu gastua ordaintzeko norgehiagokarik gabeko prozeduraren bidezko dirulaguntzen deialdia egiten duena 2026rako.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: www.infosubvenciones.es.

Lehenengoa.- Onuradunak

Herriko jaiak antolatzen dituzten kontzejak edo elkarteak izan daitezke oinarri hauetan jasotako dirulaguntzaren onuradun.

Bigarrena.- Xedea

Deialdiaren xedea da herriko jaietan programatutako jarduerak egiteko agertokia behar duten herriei hura alokatzeko dirulaguntzak ematea arautzea.

Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak

Udalbatzak 2024ko otsailaren 28ko bilkuran onetsi zituen dirulaguntza hauek emateko oinarri arautzaileak, eta maiatzaren 15eko ALHAOn argitaratu ziren (54/2024 zenbakia).

Laugarrena.- Laguntzaren zenbatekoa

1. Dirulaguntza, gehienez, alokairuaren kostuaren ehuneko 80 izango da, eta, gehienez ere, 1.000,00 euro.

2. Gehieneko muga ez da aplikatuko dagozkion adjudikazioak egin ondoren aurrekontu partida agortzen ez bada. Kasu horretan, geratzen den kopurua modu proportzionalean banatuko da baldintza guztiak betetzen dituzten eskaeren artean, baina ezingo da gainditu egindako gastuaren ehuneko 90.

3. Aitzitik, esleitutako kreditua ez bada nahikoa aurkeztutako eskaera guztiei erantzuteko, dirulaguntzaren zenbatekoa proportzionalki murriztuko da guztiei erantzun ahal izateko.

Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak oinarrietako I. eranskinean agertzen den ereduan egin behar dira, eta hartan eskatzen den dokumentazioa aurkeztu behar da, aurkeztu ere herriko jaiak amaitu ondoren eta deialdiaren urteko abenduaren 15a baino lehen.

Salbuespenez, herriko jaiak azken egun horren ondoren egitea aurreikusita badago, eta beharrezko bada jaiegun horietarako agertoki bat alokatzea, dirulaguntza eskaera aurrekontu batekin batera aurkeztu beharko da, adierazitako data baino lehen aurrekontu krediturik dagoen jakiteko. Hala egin ezean, ezin izango da inolako dirulaguntzarik eman.

Seigarrena.- Eskaerari erantsi beharreko agiriak

- Normalizatutako dirulaguntza eskaera, behar bezala beteta, I. eranskineko ereduaren arabera.
- Alokairu enpresak egindako fakturaren kopia, bai eta faktura ordaindu izanaren egiaztagiria ere.
- Bigarren apartatuan adierazitako salbuespena bada, alokairuaren eskaera eta aurrekontua.

Durana, 2026ko otsailaren 12a

Alkatea

M^a BLANCA ANTÉPARA URIBE